

Afektuen ekologia



ULA IRURETAGOIENA

Eraikin bat gorputz bat bezala irudikatzea datsegit. Instalakuntza-hoditeriak zainak bailiran, zutabeak eta ha-beak hezurdura gisa, fatxada, azal-zuntza bat. Eta eraikinaren arima eta bizi-taupadak pertsonen eragiten dute, espazioa erabiltzen eta zaintzen duten bitartean.

Abandonaturiko eraikin bat. Kanpotik zein barnetik, espazioek *rigor mortis* bat helarazten dute, paretetako pintura altxatzea, ate-banden herdoilak eta beira hautsiak iraganaren izozketa leku dira, hunkitzea sorrazten dute. Edo hoteleko logelak. Gehienak hilik daude, berdin du zenbat izar dituen. Gorputz-espazio hauetan ez da afektu-atxikimendurik gertatu denboran edo bizitza galdu da, eta zoru, sapai eta objektuak apatiko ageri dira. Maila sentsiblean, hutsik dauden materialak eta lekuak dira, hezurdura soilak.

Espazioa afektu askoren euskarri dela zinez dakigun arren, atsegin dut gaiak arrazoiketari eskapatzea eta misterio-tsua izatea inguruaren izaera materialak nola eta zein modutan eragiten gaituen. Sentsazioen definizio-saiakeran, ematen du espazioaren diseinuarekin harremanen diren gauzak gailentzen direla, eta egoera eta aspektu desberdinek elkar-eragina dutela –ekologia bat dela–, ikusten eta eraiki denaz harago. Horra hor honen guztiaren edertasuna.

Subjektibotasunaren eremu honetan, filosofiara jo behar dugu esateko gauza material guztiak, maila batean edo bestean, “bizirik” daudela eta horregatik gudan efektuak sortzen dituztela, material-efektuen eraginez (Spinoza, Thoreau, Bennett...). Harreman mota bat da material eta gizakien artean eta afektu hauek espazioan “geruza ikusezin” baten antzera presentzia hartzen dute.

Kontsumo handiko egunak datoz. Objektuak erosi eta akumulatzearen gula sumatzen dut, ez datsegit. Hain epe motzean baztertzen ditugu eskuraturiko gauzok, ezen beraiekin erlazionatzeko tartea asko murrizten den, materialek duten afektu potentziala baztertuz. ●



Txileko ezkerren kontraesanak

LEIRE ARTOLA ARIN

Gabriel Boric Txileko presidenteak agintaldi hasieratik izan duen auzi nagusietako bat izan da hegoaldeko Araucania lurraldeko gatazka. Azken urteetan areagotu egin da maputxeen eta Txileko Estatuaren arteko borroka, besteak beste, lurren jabetzari lotutakoa. Boricek, orain arteko presidenterik gazteenak, martxoan hartu zuen agintea, eta mezu esperantzagarriak eta aurrerakoiak zabaldu ziren ezkerrentzat, baita jatorrizko herrientzat ere; baina dena ez da dirudiena. Kritika gogorak jaso ditu lurren defentsan ari diren maputxeen aldetik, eta egotzi diote “enpresen eta eskuinaren interesei men egiten” ari dela. Ezkerra maputxeen eskakizunei baino kasu handiagoa egiten ari da eskuinarenei? Bada, Araucaniara azaroan egindako azken bisitan, jatorrizko herrien kritikak jaso ditu, eta, era berean, parlamentuko eskuindarrek txalotu egin dituzte bisita horretan emandako “pausoak”.

Esanguratsua izan da presidentearen jarrera aldaketa agintera heldu aurretik eta gero. Hauteskundeetarako kanpaina betean zegoela, Boric Araucanian salbuespen egoera ezartzearen aurka agertu zen, baina boterera iritsi eta bi hilabetera horixe dekretatu zuen, indarkeriari aurre egiteko “beharrezko” neurri gisa. Hortaz, maiatzetik Araucaniako herritarrek eskubide murriztagoak dituzte, salbuespen egoerak baldintzatuta. “Terrorismoa” argudiatuta, militarizazioa nabarmena izan da, eta carabineroz bete dituzte maputxeen jatorrizko lur horiek.

Boricek irmo defendatu du neurria, eta hitz gogorak izan zituen lurrak berreskuratzeko borrokan ari direnentzat, Araucaniako bisitaldian. “Terrorista” gisa deskribatu zituen, eta “arduratuta” agertu zen: “Egurra lapurtzen dutenek eta narkoek maputxeen borroka hartzen dute aitzakiatzat eta erasoak egiten dituzte”. Ordea, Arauco-Malleco Koordinakundeko (CAM) erakunde indigenistak salatu zuen *weichafe*-ak (CAMeko *borrokalaria*) kriminalizatzen ari dela Boricen gobernuak: “Guretzat ez da ezer aldatu. Kontrara, orain kolonialismoa eta kapitalismoa aurkeztzen ari dira *progresismo* zantzuakin”. Alegia, boteredunak eskuin zein ezkerrekoak izan, maputxeak zapaltzen segitzen dutela.

Gatazka konpondu nahian, presidenteak agindu du jatorrizko herriei kendutako lurrak itzuliko dizkietela. Bakerako eta Elkar Ulertzeko Batzordea eratu eta aktore sozial oro gonbidatu du parte hartzera. Dena dela, maputxeen eta gobernuaren arteko elkarriketen bidea itxita dagoela dirudi. Batetik, CAMek dio ez dela elkarriketarik egongo “maputxe preso politikoak eta militarizazioa existitzen diren bitartean”. Bestetik, gobernu berriak ere jarrera aldakorra izan du: hasieran, CAMekin ere elkarriketa irekitzeko prest agertu ziren, baina abuztuan kargutik kendu zuten Gizarte Garapeneko ministro Jeanette Vega, Héctor Llaitul CAMeko buruarekin harremanetan jartzen saiatu zelako. Llaitul abuztuan atxilotu zuten, Sebastián Piñera presidente ohiak irekitako epaiketa baten harira, lurrak indarrez kentzea leporatuta, besteren artean. Gobernuaren kontraesanak, berriro ere. ●